

KOSTUEN EGITURA

Dakigunez, enpresa bat sortzeak hasieran inbertsio bat egitea dakar. Gure kasuan, aplikazio bat sortu behar dugunez, hasieran sozietateko partaide guztiok diru sarrera jakin bat inbertituko dugu. Gure proiektuak hasieran inbertsio handia egin beharra eskatzen ez duenez kapitala lortzeko arazoak ez ditugu aurreikusten, nahiz eta mailegu baten edota beste baliabideren baten beharra ez dugun baztertzen.

Bestalde, nahiz eta ez dugun denda fisikorik izango, sozietateko kideek etxetik egingo dugu lan, beraz, **kostu finkoak** izango ditugu. Hau da, produktutako zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez diren kostuak izango ditugu (argia, horien artean). Etxetik lan egiteak, behar dugun ekipo informatikoa ez erostea ekarriko digu, beraz horri esker kostu finkoak ere bexuagoak izango ditugu. Horrez gain, gure aplikazioa sortzeko garain, enpresa edota pertsona informatiko bat kontratatuko dugu, guk nahi dugun bezalako aplikazioa disenatu eta sortu ahal izateko.

Bestalde, **kostu aldakorak** ere izango ditugu. Ekintza bakoitzean behar den materiala bezero kopuruaren arabera aldatzen joango da, geroz eta bezero gehiago orduan eta material gehiago beharko dugulako. Horregatik, kostu aldakorak uneoro alda daitezke. Honako kostu aldakor hauek aurreikusten ditugu: autobus-zerbitzua, jatetxeak eta tabernak, hotela edo lo egiteko beste edozein leku edo eraikin...

Gure enpresa balioan oinarritutako negozio-eredua izango da. Enpresaren interes handiena ez da kostuak minimizatzea izango, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea. Gainera, pertsonalizazio-maila handia eskaintzen dugu.